

Ikasle berrientzako Harrera Plana (2016-17 ikasturtea)

2016ko irailaren 6, 7, 8 eta 9

0. Aurkibidea

0.	Aurkibidea.....	1
1.	Sarrera. Testuingurua.....	2
2.	Helburuak.....	2
3.	Edukiak.....	3
4.	Metodologia.....	3
5.	Ikastaroaren egitura, irakasleak eta ikasleak.....	4
6.	1. eranskina.- Ikasleentzako aurkezpen gutuna	12
7.	2. eranskina.- Lan Pertsonaleko Planaren Memoria / Ikasteko teknikak....	14

Memoria honek aztergai du Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolako ikasle berrientzako Harrera Programa. Zehazki, 2016ko irailaren 6, 7, 8 eta 9an garatu zen programa.

1. Sarrera. Testuingurua

Hainbat azterlanek adierazten dute oro har abandonu tasa handia dagoela ingeniartzan, arrazoi hauengatik, besteak beste (arrazoi gehiago badaude ere):

- Ikasle berrien integrazio arazoak prestakuntzan lagunduko dien talde batean sartzeko, eta lagunek eta ikaskideek osatutako sare sozial bat sortzeko ezintasuna.
- Ez jakitea ingeniartza gradu bat egiteak berez zer suposatzen duen, lanerako zer aukera dituen, zer motatako lanak egin ditzakeen ingeniari batek.
- Kasu askotan, ingeniartza ikasi nahi duen ikaslearen profila bat ez etortzea errealitatearekin: hau da, sortu eta gauza berriak ikasi nahi dituen pertsona izan ohi da, gero beste zerbaitetan aplikatzeko, eta lehen ikasturteko irakasgaiekin egiten du topo, astunak zenbaitetan, eta ez du batere argi ikusten zer zerikusi duten ingeniartzarekin.
- Motibazio falta argia kasu batzuetan.
- Zailtasunak ikaskuntza metodo berrietara egokitzeko.
- Irakasgaien edukien eta irakaskuntza programazioaren eskakizun handia, dedikazio handia eskatzen diena ikasleei.
- Azken batean, kasu askotan, tituluak ez die erantzuten ikasleen itxaropenei.

Hori horrela, pentsatu genuen egokia izan zitekeela iraileko lehen astea erabiltzea (**12 ordu**), klaseak ofizialki hasi aurretik, harrera programa bat garatzeko, helburu hauekin:

2. Helburuak

Helburu nagusia da ikasle berriak eskolan integratzen laguntzea eta, horrekin batera, ingeniari baten zereginak suposatzen duenaz jabetzea.

Horretarako, beharrezkoa da...:

- Eskola modu egokian aurkeztea; hots, bai eskola bai eskolako langileok hurbileko senti gaitzatela, "beren etxean" egongo balira bezala hurrengo 4 urteetan.
- Sinergiak sortzea ikasleen artean, klaseak hasi aurretik elkarri laguntza eman diezaioten.
- Ikasleek talde laneko lehen esperientzia izatea, enpresek ingeniariari zer gaitasun eskatzen dizkieten azaltzea, eta gaitasun horiek lehen aldiz

praktikan jartzea. Erabilgarritasun handikoa izango zaie graduiko ikasketetan.

- Ingeniari batek zer lan eta zeregin izan ditzakeen jakin ondoren, lan edo zeregin horietako batzuekin identifikatzea, ikasketetarako erreferentzia gisa, beste motibazio bat izan dadin tituluaren ikasketan. Ikasleek argi ikustea zein den beren ikasketen azken helburua (adibidez: energiaren arloan lan egin nahi dut, kalitate teknikari modura, mantenimendu teknikari gisa, programazioan, institutuko irakasle, automozioan...).
- Ingeniari batek beharko dituen zeharkako gaitasunak lantzen hastea, industria kexu baita aspalditik ingeniarietarako gradudunen gabeziez. Besteak beste: trebetasun gabeziak dituzte; emaitza akademiko onak dituzten ingeniarietarako ikasleek desgaste handia dute; enpresetara iristen diren ingeniari berriek huts egiten dute maila handiko gaitasun analitikoan eta pentsamendu kirikoan, komunikazio gaitasunean eta taldean lan egiteko ahalmenean; ez dute ingeniarietarako praktiken eta negozioen berri.
- Lanerako tresnak eta ohiturak hartzea, lagungarri izango zaizkienak ingeniarietarako ikasketak hasteko eta arrakastaz burutzeko.

3. Edukiak

Hori horrela, programa 4 modulutan banatzea erabaki genuen, 3 ordukoa bakoitza, halako moldez, non egun bat erabili baitzen modulu bakoitzerako.

MODULUAK:

1. Eskolaren aurkezpen formala + Ingeniarien lana
2. Garapen Pertsonaleko Plana (GPP) + Biblioteka
3. Ikasteko teknikak
4. Ahozko aurkezpenak + sormena + arazoei irtenbidea aurkitzea + lidergoa + talde lana

4. Metodologia

Jakina, kontuan izanik helburuak, eta garrantzi berezia emanik ikasleak eskolan integratzeari, TAILER formatua erabili dugu, parte hartze handi batekin, eta lanaren zati handi bat taldean egin da.

Lehenengo moduluan, 3 ikasle ohiren laguntza izan genuen. Lehenengo saioan, beren lan ibilbidea azaldu ondoren, enpresek zer trebetasun, gaitasun eta jarrera eskatzen dituzten azaldu zuten. Bigarren moduluan, zuzendaritza taldeak eta Unibertsitateko Bibliotekak lagundu zuten. Hirugarren moduluan *Norgara* arduratu zen. Azken moduluari dagokionez, eskolako 4 irakasleren laguntza izan genuen.

Ikasle berriak 3 taldetan banatu ziren, 50 bat lagunekoak, lana eta haien integrazioa errazteko.

5. Ikastaroaren egitura, irakasleak eta ikasleak

4.1.- Ikastaroaren egitura

Ikastaroa programa honen arabera egin zen:

ORDUTEGIA. DATAK: 2016ko IRAILAREN 6, 7, 8 eta 9

1. TALDEA

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GELA	Eskola: Ekitaldi Aretoa	Ikasgelategia: 101 (lehen solairua)	Ikasgelategia: 101 (lehen solairua)	Eskola: AS2 (sotoa)
9.30 - 10.30	Aurkezpena	Garapen Pertsonaleko Programa (GPP)	Talde lana	Ikasteko teknikak
10.30- 11.30	Ingeniariaren lana	Biblioteka	Lidergoa / Sormena	Ikasteko teknikak
11.30- 12.30	Ingeniariaren lana	Biblioteka	Ahozko aurkezpenak / Arazoei irtenbidea aurkitzea	Ikasteko teknikak / Amaierako galdetegia

2. TALDEA

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GELA	Eskola: Ekitaldi Aretoa	Eskola: AS2 (sotoa)	Ikasgelategia: 102 (lehen solairua)	Ikasgelategia: 102 (lehen solairua)
9.30- 10.30	Aurkezpena	Ikasteko teknikak	GPP	Talde lana
10.30- 11.30	Ingeniariaren lana	Ikasteko teknikak	Biblioteka	Lidergoa / Sormena
11.30- 12.30	Ingeniariaren lana	Ikasteko teknikak	Biblioteka	Ahozko aurkezpenak / Arazoei irtenbidea aurkitzea / Amaierako galdetegia

3. TALDEA (EUSKARAZ)

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GELA	Eskola: Aretu Nagusia	Ikasgelategia: 102 (lehen solairua)	Eskola: AS2 (sotoa)	Ikasgelategia: 101 (lehen solairua)

Ikasle berrientzako Harrera Plana (2016-17 ikasturtea)
Memoria

9.30-10.30	Aurkezpena	Talde lana	Ikasteko teknikak	GPP / Amaierako galdetegia
10.30-11.30	Ingeniarien lana	Lidergoa /Sormena	Ikasteko teknikak	Biblioteka
11.30-12.30	Ingeniarien lana	Ahozko aurkezpenak / Arazoei irtenbidea aurkitzea / GPPa berrikustea	Ikasteko teknikak	Biblioteka

4.2.- Irakasleak eta ikasle ohiak

Irakasle eta ikasle ohi hauek parte hartu zuten 2016ko Harrera Planaren programan:

Ikasleak:

Iñaki Aguillo González: Mekanika

Amaia Morales Matías eta Gemma García Cantabrana: Kimika

Pelayo Choya Carreter: Mekanika, eta Industria Elektronikak eta Automatika

Ez zuen parte hartzerik izan: Alejandro García (Informatika)

Ikasle berrien irakasle tutoreak:

- **Mekanikako 2 talde (gaztelaniaz)**

1. taldea: José Antonio Ramos Hernanz, Amaia Calleja Ochoa eta Ruperta Delgado Tercero

2. taldea: Inmaculada Tazo Herran eta José Joaquín Campayo Martin

- **Mekanikako talde bat (euskaraz)**

Ekaitz Zulueta Guerrero, Unai Fernandez Gámiz eta Estibaliz Apiñaniz Fernandez de Larrinoa

- **Kimikako talde bat**

Naiara Rojo Azaceta eta José Ignacio Ochoa de Eribe Vázquez

- **Elektronikako talde bat**

Teodoro Rico Pastrana eta José Manuel Méndez Bermúdez

- **Informatikako talde bat**

Borja Fernandez Gauna, José Manuel López Guede eta Javier Sancho Saiz

4.3.- Ikastaroan parte hartu zuten ikasleak


Matrikula berriko 166 ikaslek parte hartu zuten, eta 126k erantzun zioten galdetegiari:

Taldea	Ikasleak
Gaztelania	129
Euskara	37
Guztira	166

5.- Galdetegiaren emaitzak

1.- Zer iritzi duzu ikastaroaz?

01 TALDEA ETA 02 TALDEA (Gaztelania)



Galdera 1.- Gaiak gustukoak izan ditut.


Galdera 2.- Gaiak egoki eta sakon aztertu dira.

Galdera 3.- Ikastaroaren iraupena egokia izan da.

Galdera 4.- Hizlariak/ek era atseginean zuzendu du/dute ikastaroa.


Galdera 5.- Erabilitako ereduak egokiak izan dira.

Euskarazko TALDEA




2.- Nola baloratuko zenuke 2016/17 ikasturteko Harrera Programako modulu bakoitzaren erabilgarritasuna?

1. Aurkezpen ekitaldia




Balorazioa positiboa da. Aldeko iritziei dagokienez, aipatzekoak dira ikasle ohien presentzia, giro ona eta ekitaldiaren izaera dinamikoa. Balorazio negatiboei dagokienez, ikasleek uste dute aurkezpen ekitaldiak gehiegi iraun duela, ingeniarietza batzuetako ordezkariak falta zirela eta nolabaiteko plangintza falta egon dela.

2. Ingeniarien lana




Balorazioa positiboa da. Ikasle batzuek uste dute ikasle ohiek sakonago azaldu beharko luketela zer-nolako esperientzia izan zuten unibertsitatean eta zer zailtasun izan zituzten, eta gradu batzuetako ikasle ohiak falta zirela nabarmendu dute.

3. Garapen Pertsonaleko Plana (GPP)




Balorazioa positiboa da, modulua entrenigarritzat jotzen baita, ondo azaldua eta interesgarria. Ikasle batzuek uste dute dinamikoagoa izan beharko lukeela.

4. Biblioteka




Oro har, ikasleek uste dute azalpenak luzeegiak izan direla.

5. Talde lana. Lidergoa /sormena: Ahozko aurkezpenak. Arazoei irtenbidea aurkitzea



Balorazioa oso positiboa da. Ikasleek uste dute harrera programako saio interesgarrienetako bat izan dela, proiektuak interesgarriak zirelako eta elkar ezagutzeko aukera eman dielako.


6. Ikasteko teknikak



Gehienen ustez, modulu hau interesgarria, parte hartzailea eta entretenigarria izan da. Hala eta guztiz ere, ikasle batzuek uste dute luzeegia izan dela eta 10 minutuko atsedenaldia egin beharko litzatekeela (3 orduko iraupena izan du).

Zerbait hobetuko zenuke ikastaroaren antolakuntzan, gaitegian, iraupenean...?

Oro har, ikasleak gustura daude harrera programarekin. Dena dela, iradokizun batzuk egin dituzte: bibliotekan erabilitako denbora eta harrera programaren iraupena murriztea, ordutegia atzeratzea, taldeen zerrendak ematea klaseak hasi aurretik, atsedenaldiren bat egitea...



6. 1. eranskina.- Ikasleentzako aurkezpen gutuna

**2016/2017 IKASTURTEKO
HARRERA PROGRAMA**

**PROGRAMA DE ACOGIDA
PARA EL CURSO 2016/2017**

Ikasle hori:

Estimado/a alumno/a:

Eskerrak eman nahi dizkizugu oraingo une honetatik zurea den Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola (IUE) aukeratzeagatik ikasketak egiteko. Ez zaizu damutuko, ez horixe! Kontuan hartu denok ari garela gogor lanean UPV/EHUko ikastegi honetan ahalik eta ongien egon zaitezten. Eta denok diodanean, hauetaz ari naiz: administrazio eta zerbitzuetao langileak, irakasleak, zuzendaritza taldekoak. IUE zure bigarren etxea izango da datozen lau urteotan. Hemen, ikasi, lagunak egin, zure irakasleekin ikasi eta zure etorkizuna prestatuko duzu.

Hori dela eta, zure eskola honekiko integrazioa erraztu eta lehenbailehen lehenengo eskuz ezagutzeko zertan datzan ingeniari baten lana, harrera programa bat antolatu dugu lehen mailako irakasgaien eskolak ematen hasi aurretik. Enpresek, Unibertsitateko Bibliotekak eta ikastegiko irakasleek aktiboki parte hartu duten 12 orduko programa horretan, deskubrituko duzu zertan lan egin dezakeen ingeniari batek enpresa batean, zein den bere eginkizuna, zer gaitasun bereganatu behar dituen. Bestalde, gradudun guztiek, batez ere ingeniariaritzaren arlokoek, izan behar dituzten hainbat gaitasun lantzen hasiko gara: talde lanean aritzeko trebetasunak, arazoak konpondu, ahozko aurkezpenak egin, lidergoa edota informaziorako baliabideen erabilera fidagarria. Hori dena giro lasai batean eta teknika dinamiken erabileran oinarrituta egingo da. Eta, horietan, aktiboki parte hartu beharko duzu.

Behin berriro ere ematen dizkizugu eskerrak gu aukeratzeagatik. Kontuan izan behar duzu ingeniariartzaren arlo zoragarrian sartzea erraztuko dizun ate aparta irekitzen ari zaizula. Gure ikasleak oso ongi prestatuta ateratzen dira. Horren frogak dira Gasteizko

Deseamos agradecerle que hayas elegido esta Escuela Universitaria de Ingeniería (EUI), que ya es tuya desde este momento, para realizar tus estudios. Seguro que no te vas a arrepentir, y, queremos que tengas en cuenta que todo el personal, tanto el de administración y servicios, como el profesorado, como el equipo de dirección, estamos trabajando duro para que te encuentres lo más a gusto posible en este centro de la UPV/EHU. La EUI será tu segunda casa para los próximos cuatro años. Aquí estudiarás, harás amigos/as, aprenderás con tus profesores/as y forjarás tu futuro.

Por ello, para facilitar tu integración en la Escuela y para que conozcas de primera mano y lo antes posible en qué consiste la labor de un ingeniero, hemos desarrollado un programa de acogida, previo al comienzo de las clases de las asignaturas de primer curso. En dicho programa, de 12 horas de duración, y en el que han participado activamente empresas, la biblioteca universitaria y profesorado del centro, vas a descubrir de qué puede trabajar un/a ingeniero/a en una empresa, cuál es su función, qué competencias tiene que desarrollar. Además, empezaremos a trabajar algunas habilidades que tiene que tener todo/a graduado/a, en especial en el campo de la ingeniería: destrezas tales como el trabajo en equipo, la resolución de problemas, la realización de presentaciones orales, el liderazgo o el uso solvente de los recursos de información. Todo ello en un ambiente distendido y basándonos en el empleo de técnicas dinámicas y en las que tendrás que participar activamente.

De nuevo queremos expresarte nuestro agradecimiento por habernos escogido. Ten en cuenta que se te está abriendo una puerta excelente para facilitarte el trabajo en un área apasionante como es la ingeniería. Nuestro alumnado sale perfectamente preparado, y así

Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolatik ateratako ikasleek beren zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta erakunde ugariak. Enpresa horiekin jarraitzen dugu etengabeko harremanetan, ematen dugun prestakuntza behar bezain gaurkotuta dagoela bermatzeko.

Gure desio bakarra da gogotsu has zaitezen. Ondotxo dakizu bidea ez dela erraza, baina gogoratu behar duzu gakoa hasieratik etengabe lan egitea dela. Eutsi goiari eta gogoan izan beti jo dezakezula irakasleengana edo zuzendaritza taldeko kideengana edozein orientazioz edo iradokizunez galdetzeko.

Hau da irailaren lehenengo asterako arretaz diseinatu dugun harrera programa. Nahitaez joan behar da, zure ikasketei begira oso lagungarri izango dela jotzen baitugu. Animo! Gainera, kreditu bat lortuko duzu baldin eta harrera ikastaroan hartu dituzun apunte eta gogoetez txosten bat aurkezten badiguzu.. Eskerrik asko.

IUEko zuzendaritza taldea

lo atestiguan la multitud de empresas e instituciones en las que prestan sus servicios los/as titulados/as de esta Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz; empresas con las que seguimos manteniendo un contacto permanente para asegurar que la formación que se imparte está perfectamente actualizada.

Sólo queremos que comiences con ganas, ya sabes que el camino no es fácil, pero recuerda que la clave es el trabajo continuo desde el principio. No te desanimes y ten en cuenta que siempre puedes acudir al profesorado o al equipo de dirección para cualquier orientación o sugerencia que consideres oportuna.

Este es el programa de acogida que hemos diseñado con esmero para la primera semana de septiembre. Es de asistencia obligatoria, porque consideramos que puede serte de gran ayuda para tus estudios. ¡Ánimo! Además, conseguirás un crédito si nos presentas un informe con los apuntes y reflexiones que hayas tomado durante este curso de acogida. Muchas gracias.

El equipo de dirección de la EUI

7. 2. eranskina.- Lan Pertsonaleko Planaren Memoria / Ikasteko teknikak

MEMORIA

UNIBERTSITATE IKASLEENTZAKO LAN PERTSONALEKO PLANA

IKASTEKO TEKNIKAK

MEMORIA

2016ko IRAILA

Lidia Aguilera Goicoechea

AURKIBIDEA

- 1. Ikastaroaren edukiak**
 - 1.1. Aurkezpena: zer dira ikasteko teknikak?**
 - 1.2. Nire abiapuntua**
 - 1.3. Eskakizun berriak**
 - 1.4. Motibazioa**
 - 1.5. Ikasketaren plangintza egitea**
 - 1.6. Ikaskuntza prozesuaren estrategiak**
 - 1.7. Estrategien balantza**
- 2. Taldeen bilakaeraren analisia**
 - a. Ikasleen balorazioa**
 - b. Ikasleen ideia esanguratsuak**
- 3. Ikastaroaren balorazio orokorra**

1. IKASTAROAREN EDUKIAK

Ingeniaritza Eskolako ikastaroaren arduradunekin eginiko bileraren ondoren, pitin bat egokitu ditugu haren edukiak, koherenteak izan daitezen –eta errepika ez daitezen– ongietorri programan ikasleei eskaintzen zaizkien gainerako saioekin.

Aurreko urteetan bezala, talde txikiekin aritu gara, motibazioa eta gogoeta pertsonala landuz, jendea parte hartzera bultzatzeko. Ikasle bakoitzak aukera izan du bere egoeraz gogoeta egiteko, ikasteko teknikekin lotutako arlo bakoitzean zer puntutan zegoen jabetzeko, ibilbide berri hau nola egin erabaki ahal izateko, kontuan izanik bere indarguneak eta ahulguneak.

Ikastaroko edukiak eta tresnak hauek izan dira:

1.1.AURKEZPENA: ZER DIRA IKASTEKO TEKNIKA?

Tailerra egoki egiteko behar ditugun eskakizunak zehaztu ondoren, denen artean, ikasteko teknikak zer diren eta zertarako balio duten definitzen dute.

Konturatzen dira ikasle bakoitzak bere teknika duela, orain arte eraginkorra izan dela, eta teknika hori erabil eta hobetu dezaketela eraginkortasunik handiena lortzeko erabilitako denboraren, ahaleginaren eta emaitzen artean. Beraz, jabetzen dira tailerra sortu dela ikasle bakoitzak bi galdera hauen erantzunak aurki ditzan:

Egokiak dira nire estrategiak eskakizun berrietarako?

Ikaskuntza prozesuaren zer urratsetan izan behar dut eraginkorragoa?

1.2.NIRE ABIAPUNTUA

Aurtengo berrikuntza modura, ingeniariitza ikasteko arrazoiak jabetzera bultzatzen dituen beste dinamika bat planteatzen dugu, eta ulertzen dute arrazoi hori funtsezko oinarria dela beren ikaskuntza prozesua eraikitzeko. Erabakigarria ez bada ere, neurri handi batean baldintzatzen ditu ahaleginerako gaitasuna, motibazioa eta unibertsitate ikasketei begira dituzten itxaropenak, eta horren jakitun izanik, beren abiapuntutik sortutako aukerak aprobetxatu edo zailtasunak arindu ditzakete. Adibidez, leku desberdinetan daude ingeniariitza lan aukerengatik ikasten duena eta bokazioagatik ikasten duena.

1.3.ESKAKIZUN BERRIAK

Institutuaren eta unibertsitatearen arteko desberdintasunez jabetzen laguntzen duen dinamika bat planteatzen dugu, ikasleek rol aktibo eta autonomoago bat har dezaten beren ikaskuntza prozesuan, eta erantzukizun handiagoz joka dezaten.

1.4.MOTIBAZIOA

Motibazio arloan nola funtzionatzen duten jabetzera bultzatzen dituen dinamika bat planteatzen dugu: barnekoa ala kanpoko den, positiboa ala negatiboa.

Hauxe da ikastaro honetan gehien aldatu den puntua. Izan ere, beste profesional batzuek motibazioa sakonago aztertzen badute ere, gure zeregina honetara mugatzen da: ikasleek ulertzea zer motatako motibazioak dauden eta zer garrantzitsua den barneko motibazio positiboa lortzea.

1.5.IKASKETAREN PLANGINTZA EGITEA

Ingeniaritza ikasteko zioaz gogoeta egin eta horrekin lortu nahi luketena baloratu ondoren, garrantzitsua da ikasleek ulertzea zenbat denbora eta ahalegin erabili beharko dituzten egiazki beren helburua epea laburrean betetzeko (kasu gehienetan, irakasgai guztiak gainditzea). Plangintzaren bidez, ikasteari eskainitako ahalegina kuantifika daiteke, eta ikusi ea posible den helburua betetzea, kontuan izanik egoera pertsonala, karreraz kanpoko konpromisoak eta ikasteko aukerak, edota helburuak birplanteatu behar diren, arrakasta lortu ahal izateko.

1.6.IKASKUNTZA PROZESUAREN ESTRATEGIAK

Tailerraren puntu teorikoena da, eta ikaskuntza prozesua egoki garatzeko aholkatzen diren estrategiak aztertzen dira. Bereziki aipatzen da estrategia bakoitzak hainbat aplikazio dituela eta ikasle bakoitzak ikusi behar duela zein den egokiena beretzat. Funtsezko puntuak berrikusten dira, arretari eta edukiaren analisi eta asimilazioari dagokienez, eta material osagarria ematen zaie hala nahi duten ikasleei.

1.7.ESTRATEGIEN BALANTZA

Ikaskuntza prozesuko estrategia nagusiak aztertu ondoren, beren estrategiak balantza batean ipintzeko eskatzen zaie ikasleei, eta urrats bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak identifikatzeko. Ikasleek ohartu behar dute indarguneei esker iritsi direla unibertsitatera eta komeni zaiela horiek mantendu eta erabiltzea, eta, aldi berean, saiatu behar dute ahulguneak hobetzen eta orekatzen, strategi berri eraginkorragoen bidez.

Ikaskuntza esanguratsuena berdinen artean sortzen denez, boluntarioei eskatzen zaie beren balantzak azaltzeko, eredu modura erabiltzeko indarguneei dagokienez, eta bide alternatiboak aurkitzeko ahulguneetan, beste ikasle batzuen laguntzaz.

Dinamika honek tailerra ixten du, hasieran planteatu diren 2 galderei erantzun ondoren.

2. TALDEEN BILAKAERAREN ANALISIA

a. Ikasleen balorazioa

Oro har, ikasleek arretaz eta interesez landu zituzten edukiak, eta planteatu zitzaizkien dinamiketan parte hartu zuten. Aurreko aldietan bezala, talde handian ikasle gutxi batzuk baziren ere lotsarik gabe beren iritzia ahoz gora ematen zutenak, taldeak aktiboagoak eta dinamikoagoak ziren talde txikiko dinamika planteatzen zirenean, eta parte hartzea, handiagoa.

Hona hemen taldeen arteko desberdintasunak:

a.1) 1. taldea (industria)

71 ikaslek eman zuten izena eta denak azaldu ziren.

Gehienak batxilergotik zetozen eta bokazioz hautatu dute karrera. Karrera beste ikasketa batzuk baztertuz aukeratu duten hiru talde zeuden, 10 bat lagunekoak, lan aukerak dituen karrera delako eta familian ingeniariak dituztelako.

Oro har, etengabe birkokatu behar zen talde bat zen, ikasle batzuek talde handian parte hartzen zutelako eta beste batzuek txikian egitea erabaki zutelako, eta klasearen erritmoa motelagoa zen horregatik. Taldea etengabe birkokatzen ibili behar izan genuen.

Bitxikeria modura, oso prest agertu ziren obeditzeko, eta erreaktibo, aldiz, obeditzeko arrazoiak galdu zitzaizkion. Oro har, zail gertatzen zitzaion identifikatzea eta zehaztea zeintzuk diren jardutera bultzatzen dituzten arrazoiak eta zer helburu bete nahi dituzten horren bidez.

Bereziki deigarria da unibertsitateaz zuten ideia ("azterketa garai bakar bat dago eta hor arriskatu behar da dena" ideiarekin jarraitzen zuten), eta ez ziren konturatzen etengabe ebaluatuko dituztela eta azterketa partzialak egin beharko dituztela.

Balorazio saioa: Lehen saioan baino ikasle kopuru dezente txikiagoa azaldu zen (18 ikasle hasierako 71tik).

Saioa etortzeko arrazoiak galdetuta, gehienek erantzun zuten amaitu egin nahi zutela lehenengo saioan hasitakoa, oso argi ez bazuten ere zer esan nahi zuen horrek. Motibazio nagusia, beraz, saioa nola ixten genuen jakiteko nahia zen. Hala eta guztiz ere, parte hartzeko prestasuna agertu zuten, eta motibazio maila handia.

Ikasturtearen lehen hiru asteetako lan erritmoari dagokionez, bat zetorren hasierako aurreikuspenekin ia kasu guztietan, karrera gogorra izango zela pentsatzen bazen ere. Nolanahi ere, bakar batzuek adierazi zuten espero zutela erritmoa handitzea, ordura arte lasaiegia izan zelakoan.

Ikasten emandako orduak asteko ordutegi batean adierazteko orduan, gehienek egokitzapenak eta aldaketak egin behar izan zituzten lehen saioan eginiko ordutegiari dagokionez, ohartu zirelako erabilitako ordu kopurua ez zela nahikoa eta/edo ez zetorrela bat 1-1,5 proportzioarekin (klase orduen eta norberak ikasten emandako orduen arteko proportzioa). Dena dela, batzuek beren hasierako ideari eutsi zioten: hots, kapaz izango direla lan eta ahalegin txikia eginez irakasgai guztiak arazorik gabe gainditzeko. Errealitatera egokitzeko gaitasunik eza ikusten da hor, itxiera saioa azterketa garaitik urrun egoteagatik ziurrenik, eta ahalegin eta dedikazio mailari lotutako ageriko emaitzarik ez edukitzeagatik.

Noizbait emaitza horiek ikasleen itxaropenekin bat ez badatoz, espero izatekoa da asteroko dedikazio ordutegia egokituko dutela, baita hasierako helburuak betetzeko itxaropenak ere.

a.2) 2. taldea (euskara)

37 ikaslek eman zuten izena eta 35 azaldu ziren.

Oso talde egokia eta gogotsua zen, arretaz entzuten zuten eta oro har parte hartzeko gogoz aritu ziren. Gehienek lan aukerengatik hautatu dute karrera, eta harrituta zeuden ikustean egunez egun zer ahalegin eskatzen dien. Batzuek beldurra ere adierazi zuten itxaropenak ezin betetzeagatik, ikasteko ustez beharko dituzten ordu guztiak ez edukitzeagatik.

Balorazio saioa: 16 ikaslek parte hartu zuten. Taldea puntual iritsi zen, gogotsu, eta hasieratik bertatik parte hartzea –nahiz eta ez orokorra– oso aktiboa izan zen, eta gogoak zituzten ikasturtearen lehen asteetan bizitakoa partekatzeko: irakasgaiak, irakasleak, zailtasunak eta sentsazioak.

Ikasturte hasierako lehen asteek galdetuta, gehienek esan zuten, zailtasunak zailtasun, ordura arte nahiko ondo moldatu zirela eta zailtasuna espero zutena baino txikiagoa izan zela (kezka ere adierazi zuten zailena iristear dagoelako). Orain arteko

ulermen maila kuantifikatzeko eskatu zitzaien, eta % 60aren inguruan kokatu ziren ia denak.

Ikaskuntza prozesuaren lehen etapa honetan identifikatu diren beste zailtasun batzuk:

- Arreta jartzeko zailtasuna neke handiko egoeretan, edo klasea oso dinamikoa ez denean.
- Apunteak hartzeko eta horiek ulertzeko zailtasuna, eta klasean hartutako oharrek errepasatzeak eskolaz kanpoko orduetan eskatzen duen denbora.
- Batxilergoarekin alderatuta egin behar den ahalegina, eta errealitate berrira egokitzeko beharra.
- Maila sozial eta pertsonalean izandako aldaketaren eragina ere aipatzen da. Kasu batzuetan eragina dute ikasketetan.
- Batzuei kostatzen ari zaie ulertzea nola funtzionatzen duen irakasgai bakoitzak eta irakasle bakoitzak, apunteak emateko orduan, etab.
- Tutoretzetara joateko zailtasuna, bat datozelako denboran eskola batekin.

Jarraikitasunez aritzeak duen garrantzia nabarmendu zen, eta egunean ordu eta erdi erabili behar dituztela gutxi gorabehera klase ordu bakoitzeko. Beraz, oso garrantzitsua da denbora ondo erabiltzea eta beren errealitatera egokitzea.

Bestetik, nabarmendu egin zen ere irakasleekin eta tutoreekin harremanetan egotearen garrantzia, zalantzak argitzeko edo irakasgaien edukiekin izan daitezkeen arazoei edota blokeoei irtenbideak aurkitzeko.

Azkenik, taldearen garrantzia azpimarratu zen, ikaskuntza prozesuan elkar laguntzeko, batek izan ditzakeen zailtasunak ikaskideen laguntzaz gainditu daitezkeelako. Prozesu honetan, nork bere indarguneak erabil ditzake besteei laguntzeko, eta besteen laguntza eskatu, zailtasunak dituenen.

a.3) 3. taldea (informatika)

58 ikaslek eman zuten izena eta 48 azaldu ziren.

Taldeak hasieran ez zuen arreta handirik jarri, aurrean genuen lana kontuan izanik, eta nabari zen elkar ezagutzen zutela, aurreko egunetatik. Txantxak egiten zituzten beren artean eta hasierako giroa lasai samarra izan zen.

Hori ez zetorren bat karrera hautatzeko aipatu zuten arrazoiarekin –nork bere motibazioa–, eta nahiko argi zuten oro har zer motatako lana aurki zezaketen karrera amaitzean.

Edukietan sakontzen hastean, seriotasun handiagoz hartu zituzten gauzak, eta parte hartzen hasi ziren; interes handiz landu zituzten gaiak, zalantzei buruzko galderak

egin zituzten eta nork bere iritzia eman zuen. Gehienak batxilergotik bazetozen ere, batzuek modulu bat egina zuten, eta lanpostu batean edo gehiagotan aritutakoak ziren; azken horiek ausartago aritu ziren hitz egiteko eta beren iritzia emateko orduan. Ikasleak talde handian partekatzen animatu genituenean, ez zuten zailtasun handirik izan, lotsati aritu baziren ere.

Balorazio saioa: 5 ikasle bakarrik azaldu ziren: lau mutil eta neska bat.

Saioa etortzeko arrazoiak galdetuta, lauk erantzun zuten deialdiagatik etorri zirela, lehenengo saioan hasitakoa amaitzera. Ikasle batek ez zuen lehenengo saioan parte hartzerik izan, eta horregatik etorri zen, jakin-minagatik.

Lan erritmoari dagokionez, bi ideia nagusi aipatu ziren. Alde batetik, esan zuten hasierako lan erritmoa onargarria eta oso eramangarria izan dela. Bestetik, batzuek aipatu zuten zailtasunak dituztela irakasgai batzuetan erritmoari jarraitu eta azalpenak ulertzeko.

Dedikazioa asteko ordutegi batean adierazteko orduan, egokitzen batzuk egin behar izan zituzten hasierako ordutegiari dagokionez, proportzio egokia betetzen saiatzeko: ordu eta erdiko lana klaseko ordu bakoitzeko. Bi ikasle lanean dabiltza, eta ikasi beharreko irakasgaiak murrizteko aukera planteatu zen, irakasgaiak gainditzeko aholkatzen den proportziora iristen ez direlako. Bestetik, ikasle batek, oraindik klaseen ordutegia ezagutu gabe, ez zuen programazio baten beharrik ikusten. Hori horrela, errealitatea ipini genion aurrez aurre, ohar dadin zer lehentasun dituen eta, zeinahi ere izanik lehentasun horiek, horien arabera joka dezan.

Azken batean, esan genezake jarraipen saio pertsonalizatu bat izan zela, eta ikasle bakoitzarekin hitz egin ahal izan genuela, haren egoeraz. Programazio indibiduala egiten lagundu zitzaion, helburuak eta motibazioa doitzen.

b. Ikasleen ideia esanguratsuak

Ikasleek tailerrean aipatu zituzten ideia esanguratsuenak:

- Bere ezagutzak partekatzen dituen pertsona gisa ikusten dute irakaslea, baina ez dute hurbilekoa sentitzen, zalantzak argitzen lagunduko dien pertsona. Saiatu gara ikasleei azaltzen irakasleek kontuan hartzen dutela ikasleak erakusten duen interesa irakasgaiarekiko eta tutoretza saioekiko.
- Jakin badakite orain beren esku dagoela lehentasunak ezartzea, eta beren plangintzetan, batzuetan, atsedenera edo aisiari kentzen dizkiote orduak ikasturtea aurrera ateratzeko aurreikusten den ikasketa denboran erabiltzeko. Saiatu gara zentzuz joka dezaten, ikusarazten posible ote den, adibidez, 6 orduz jarraian ikastea atsedenera hartu gabe. Oro har, ikuspegi oso positiboa dute lan egiteko eta jarraitasunez aritzeko beren gaitasunaz.

- Harreman sozialak areagotzean, hobetu egin daiteke ere dedikazioa eta klasean landutako gaien aprobetxamendua.
- Oro har, esan genezake –aurreko urteetan bezala– ez dutela konfiantzarik jada badituzten eta unibertsitatera iristen lagundu dieten baliabideetan.

3. IKASTAROAREN BALORAZIO OROKORRA

Orain arte ikasleek ikastaroari buruz eginiko balorazioaren berri izan ez badugu ere, ikastaroan zehar izan dugun pertzepzioetik egin dugu gure balorazioa.

Oro har, ez zen desberdintasun handirik egon taldeen artean. Denek interesa erakutsi zuten, eta sakontzeko gaitasuna, gaiak talde txikian lantzeko. Parte hartzeari dagokionez, aktiboa izan zen, eta klase bakoitzeko ikasle talde bat ausartu egin zen talde txikian aztertutakoa ahoz gora partekatzeraz.

Ohi bezala, uste dugu landutako edukiak interesgarriak izan zirela ikasleentzat, interesa eta arreta erakutsi zituztelako.

Positiboki baloratzen jarraitzen dugu 3 profesional izatea talde bakoitzeko (bideratzaile bat 20 ikaslerentzat, gutxi gorabehera), dinamikotasuna ematen diolako esku-hartzeari, eta aukera ematen digulako ikasleekin zuzenean maila pertsonalean aritzeko eta, era horretan, haien planteamenduak zuzenago eta modu ez hain inbaditzailean aztertzeko.

Iraupena egokia da tailerrean lantzen diren edukientzat, eta gainera 10-15 minutuko atsedenaldirik txiki bat egiteko aukera ematen du, mesedegarria ikasleen arreta mantentzeko.

Aurtengo proposamen berriari dagokionez –balorazio saioa–, uste dugu oso positiboa eta aberasgarria izan dela parte hartu duten ikasleentzat. Zalantzekin hurbildu ziren, saioan zehar argitu ahal izan zituzten zalantzak, eta gure balorazio proposamena lagungarri izan zitzaizen beren burua birkokatu eta hemendik aurrerako urratsak birplanteatzeko.

Hala eta guztiz ere, saioetan oso lagun gutxik parte hartu dute, eta jakin izan bagenu bideratzaile gutxiagorekin moldatuko ginatekeen. Datorren urteari begira, baliabideak hobeto aprobetxatzeko, balorazio saioetarako izena ematea eska dakieke ikasleei, zenbat dauden egiazki interesatuta jakiteko eta horren arabera jokatzeko. Are gehiago, aurtengo bezala ikasle taldea txikia bada, saio bat baino gehiago egin liteke hiruhilekoan zehar, etengabeko hobekuntzari begira.

Amaitzeko, esan genezake ikastaroaren balorazio orokorra positiboa dela.